



HITZA Leitzaldera zabalduko da maiatzaren 21etik aurrera

EGUNERO ▶ Datorren ostiraletik aurrera bertako gaiak jorratuko ditu egunero

AURKEZPENA ▶ Gaur izango da aurkezpena Leitzako udaletxean

HARRERA ▶ Gizarte eragileek harrera ona egin diote egitasmoari ▶ 2

IRATXE ETXEBESTE



Urteko lehen babarruna erein dute Arzakekin

TOLOSA ▶ Agintariak eta Babarrunaren Elkartea ikasleekin aritu ziren Santa Luziako lurretan ▶ 3

ANOETA ▶

XIV Orduko Ibilaldia 9. aldiz egiteko asmotan

1972tik izan da Demetrio Bengoa ▶ 4

ASTEASU ▶

Gipuzkoako II. Zaldi Eguna bihar

Azokak eta erakustaldiak izango dira egun osoan zehar ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

Baserritarrek San Isidro eguna ospatuko dute ekitaldi ugarirekin: meza, bazkaria, kirolak...

Eskualdeko herri askotan izango dira egun handia ospatzeko ekitaldiak ▶ 7

KOMUNIKABIDEAK ▶

Datorren astetik aurrera Leitzaldera ere zabalduko da Tolosaldeko HITZA egunkaria

Leitza eta Aresoko informazioa emango du egunero hilaren 21etik aurrera; gaur eguerdian izango da aurkezpen ekitaldia Leitzako udaletxean

JOXEMI SAIZAR

TOLOSALDEKO HITZAK bere lan esparrua zabaldu egingo du datorren astetik aurrera. Izan ere, hilaren 21etik Leitzaldea ere jorratuko du; Leitza eta Aresoko informazioa jasoko du egunero, eta Nafarroako bi herri horietan banatuko da euskarazko egunkaria. Horrela, orain arte egunerokoa Tolosaldeko 28 herrietako berriak jaso eta 28 herrietan banatzen bada, 21etik aurrera bi herri horietako berriak ere jasoko ditu eta bietan banatuko da. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA izango du izena hemendik aurrera euskarazko egunkariak.

Duela hilabete batzuk hasitako lanaren emaitza da ekimen berria. Historikoki Gipuzkoako eta Nafarroako bi eskualde horiek beraien artean izan duten harremana zela-eta sortu zen zabalpenaren ideia HITZAKO arduradunen artean.



Leitza eta Aresoko berriak jasoko ditu egunero HITZAK. Argazkian, Leitzako udaletxea. JAIONE ASTIBIA

Leitzaldeko eguneroko berriak euskaraz ematea interesgarritzat jotzen zuten, euskararen normalizazio prozesuan pauso garrantzitsutzat jotzen zuten.

Leitza eta Aresoko gizarte eragileekin harremanetan jarri eta HITZA Leitzaldera ere zabaltzearen ideia planteatu zieten. Bi herrietako udal ordezkari,

alderdi, kirol eta kultur elkarte eta ikastetxeetako ordezkarien harrera ezin hobea izan zen eta proposamena interesgarria iruditu zitzaion. Are gehiago,

DATUAK ▶

Biztanleak.

▶ Leitza. 2.935.

▶ Areso. 294.

Euskaldunak.

▶ Leitza. %90.

▶ Areso. %98.

proiektua laguntzeko eta sendotzeko konpromisoa hartu zuten bileretan parte hartu zuten guztiek.

Hala, eman beharreko pausoak gauzatzeko joan ziren: kazetaria eta banatzailea bilatu, hautatu eta trebatu. Leitzako Udalak utzitako egoitza egokitu...

Aurkezpen ekitaldia, gaur

Gaur 12:00etan egingo da Leitzako udaletxean proiektu berriaren aurkezpen ekitaldi publikoa. Leitzaldeko gizarte eragileek eta TOLOSALDEKO HITZAK ordezkariak parte hartuko dute ekitaldian. Leitzaldeko herritar guztiak daude gonbidatuta. Ondoren mokadu bat hartzeko aukera izango da bertan.

Eta ostiraletik aurrera HITZA Leitzaldean ere banatuko da, eguneroko kultur, kirol, politika, udal, gizarte, ekonomia eta bestelako berriak euskaraz emanez bertako eta Tolosaldeko bizilagunei. HITZAREN beste aurrerapausoa izango da.

HITZAK Leitzaldean egunero 500 ale inguru banatzeko helburua dauka.

Gizarte eragileen harrera ona proiektuari

Bi herrietako alderdi politiko, kirol eta kultur elkarte eta ikastetxeetako ordezkarien iritzia proiektu berriari buruz jaso du TOLOSALDEKO HITZAK; egunerokoa eta euskaraz izatea baloratu dute bereziki

JAIONE ASTIBIA

Leitza eta Aresoko hainbat gizarte eragileri zein politikori, beren iritzia eskatu diegu HITZA euskarazko egunkariari buruz, eta harrera ona egin diote.

OLATZ ARIZMENDI
AURRERA KE-KO LEHENDAKARIA

«Oso baliagarri izanzen zaigu zerbitzu modura»



«Egunero Leitza eta inguratzen gaituzten herrietako informazioa jasotzea ona izanzen da, eta garrantzitsua hori euskaraz jasotzea. Jendearengana zuzenean iristeko oso bide egokia da, oso hurbilekoa, bertatik zabalduko da».

ASIER ZABALETA
LEITZAKO LARRAINEKO ZINEGOTZIA

«Herriko bizia gertutik jarraitzeko bidea»



«Etxean, egunero, euskaraz, oso aberasgarria da. Bilanpostu ere sortu dira. Gure zonalde honetan amankomuneko gaietan elkarlanerako tresna baliagarri izan daiteke».

ARANTZA AZPIROZ
KULTUR TALDEKO KIDEA

«Bertako aktualitateko gaien berri euskaraz»



«Hori berez aberasgarri da eta gainera, euskal komunikabide baten he-

dapenerako bada, hobeto. Egunerokotasuna ere garrantzitsua izanzen da, bertatik landutakoa izanzen delako. Zerbitzu modura ere oso erabilgarri izanzen zaigu informazioaren hartu-emanerako».

PATXI SAENZ
LEITZAKO ALKATEA

«Egunerokotasunak garrantzia izanen du»



«Herri informazioa emateko euskarazko egunkariaren proiektu interesgarri eta beharrezkoa, berri lokalak jasotzeko aukera izanzen delako; adibidez, Udaleko gaien inguruko desinformazioa arintzeko tresna baliagarria izan daiteke. Informazio iturria badago».

MIKEL BARAIBAR
ARESOKO ALKATEA

«Euskaraz izatea da garrantzitsua»



«Ezagutzen dut eta herriko informazioa izateagatik, herriko jende mota guztiek irakurtzen dute. Euskaraz irakurtzeko ohitura sortzen du. Bertako berriak jakiteko interesgarria da, baita herriak ezagutzera emateko ere».

AMAIA APEZETXEA
AMAZABAL I.KO GURASO ELKARTEA

«Beharrezkoa da»



«Euskaraz izatea da garrantzitsua eta beharrezkoa gainera, informa-

zioa euskaraz jasotzea eskubi-dea delako. Talde modura, baliagarri izanzen zaigu egunkari hau, egiten dugun lana agertzeko eta erakusteko hain zuzen. Lastima aurreragotik ez izateak».

JUAN JOSE LAZKANO
LEITZAKO EA-KO ZINEGOTZIA

«Herri hauek gehiago piztuarazteko ona»



«Leitza eta Areso herri tikiak dira eta bi hauetarako oso garrantzitsua izanzen da HITZA egunero banatzea, ematen den informazioa garbia eta gardena bada. Ez da batere txarra. Hemengo informazioa zabalduz, jendea bertan geldiarazteko ona izan daiteke».

GIZARTEA ▶



Udal ordezkariak, Tolosako Babarrunaren Ekoizleen elkarteak, Tolosako Babarrunaren Kofradiako kideak eta Samaniegoko ikasleak, Arzakekin, atzo, babarruna ereiten. I. ETXEBESTE

Lurreko altxor bereziena ereiten

Atzo egin zuten Tolosako babarrunaren urteko lehen ereinaldia Juan Mari Arzak sukaldariarekin batera

IRATXE ETXEBESTE

Babarruna egiteko garaia da. «Lurra ondo maneatuta, ureztatuta eta ongarritua dago; alea, Tolosako Babarrunaren Elkarteak ezarritako parametroak kontuan hartuta hautatua; eskuak, lanari ekiteko aginduaren zain, eta bihotza, taupaka, hasteko gogoz». Tolosako babarrunaren lehenengo ereinaldiaz ari gara.

Juan Mari Arzak sukaldariaren ohorezko laguntzarekin, atzo egin zuten Santa Luzia auzoan dagoen Santa Lutzi Berri baserriko lursailetan Tolosako babarrunaren urteko lehen ereinaldia. «Orain arte baserritarrek isilean eta inor asko ohartu gabe egin duten lana guztiei aurkezteko» egin ere, Tolosako alkate Jokin Bildarratz, Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu Departamentuko lehendakari Jose Miguel Gomez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Inguruaren Garapenerako saileko diputatu Nuriá Lopez de Gereñu eta Tolosako Babarrunaren

Ekoizleen Elkarteak eta Tolosako Babarrunaren Kofradiako ordezkariak bertan zirela. Samaniegoko ikastetxeko ikasleen laguntza izan zuten guztiak.

Udaberrian ereiten da babarruna: hotz handienak pasatu direnean eta gaueko tenperatura 12-13º-ra iristen denean. Berotasun horrek alea ernetzen laguntzen du, izan ere. Aurtengo udaberria euritsuia izan den arren, maiatzeko lehendabiziko beroekin Tolosako babarruna ereiten hasteko itxaropena dute baserritarrek.

Erein aurretik, hamar bat egun lehenago, lurra ongarrituta eta ondo ureztatuta eduki behar izaten dute, gainazala ez gogortzeko. Askotan babarruna artoaren lagun izaten dela diote, eta horregatik landatzen dute artoa babarrunaren alboan. Artoa babarruna baino hamar bat egun lehenago erein behar da, hori bai. Egundik 17 hektarea inguru erabiltzen da Tolosako babarruna egiteko. Aurten, hain zuzen, 30.000 kilogramo ateratzeko asmoa dute. Santa Luzia baserriko Juan

Joxe Salaberriak aspalditik ezagutzen du babarrunaren laborantza, eta zera ikusi du urteotan: babarrunaren ekoizpenak «gero eta garantia handiagoa» ematen diela kontsumitzaileei kalitatearen eta ereiten den babarrunaren jatorriaren aldetik. «Betiko azoka eta denden bitartez helduko da babarruna etxeetara; esan daiteke, babarruna dela Tolosako kultur enbaxadore onena gure inguruan eta hemendik kanpo».

Juan Mari Arzak sukaldariak ere hala dio, Tolosako babarruna berezia dela: «Zapore eta azal finekoa da». Kalitatezko produktuaren garrantziari buruz ere hitz egin du Arzakek: «Guk egindako platerak gure kulturaren oinarritutakoak dira; ikerketa-abangoardia sukaldaria da nirena, eta lehengaiak ezagutzen duzunean, kasu honetan babarruna, beste sentimendu batekin prestatzen duzu platera, produktu baten atzean pertsona bat dagoelako. Gure baserritarrak eta arrantzaleak gabe ez ginateteke ezer sukaldariok».



Goian: Arzak, udal ordezkariak eta Tolosako Babarrunaren Ekoizleen elkarteak; behean, Tolosako Babarrunaren Kofradiakoak. I. ETXEBESTE

hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



Juan Angel Ezeiza Otamendi

JAUNA

Herenegun hil zen, Urkuzin, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bederikapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Bere arimaren zuzendaria: Juan Jose Garmendia; emaztea: Maria Jauregi; seme-alabak: Juanjo eta Nati, Tomas (+), Pello, Izaskun eta Joxe, Rosa, Karmen eta Juan Mari, Tomax eta Merxe, Patxi eta Nekane, Agustin eta Arantxa; anai-arrebak: Maria (F. Makazagaren alarguna), Simona Iekaiemea(+), Tomasa (F. Arrutiren alarguna), Tomas eta G. Lasa, Dominica (+) eta J. M. Eizagirre (+), Angeles (+) eta M. Ezeizabarrena (+), Santos eta I. Irizar; bilobak: Joanes eta Nagore, Agustin eta Aritz, Maite eta Xabier, Xuban eta Malen, Alazne eta Laiene; koinatu-koinatak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaiak.

Haren animaren alde otibat bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR LARUNBATA, arrazaldeko SEIETAN, SANTA MARIA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

heltzea ▶ Urkizu gainkoa, 7 Urkizu auzoa (Tolosa)
oharra ▶ Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongadako Tanatorioan egongo da, gaur goizeko hamarak arte


TOLOSA, 2004ko maiatzaren 15a



Elduaien Hizkuntza Eskola 2004ko ludoteka

Uztailean Ingelesez ondo pasa nahi baduzu, Zatoz gure akademiarara!!!

DEI EZAZU 943 674 733
TELEFONORA 16:30etik 19:00etara.
epea irekita egongo da maiatzaren 20a arte.

XIV ORDUKO IBILALDIA ▶ 



Sasoia duen bitartean XIV Orduetan parte hartzen jarraituko duela dio Demetrio Bengoak. BIANDITZ IRAOLA

112 ordu eta 548 kilometro bizkarrean

1972an hartu zuen parte lehen aldiz Demetrio Bengoak XIV orduetan, eta harrezkero ez du hutsik egin

BIANDITZ IRAOLA

Parranda eta mendia ez direla bateragarriak garbi dauka Demetrio Bengoak anoetarrik. Berak bietatik egiten zuela dio, baina behin parranda utzi ondoren mendira gehiago irteten hasi zela, eta denboraren joanean horrek poztasun handiak eman dizkio.

Mendian ezezik, XIV Orduko Ibilaldian ere beterrano bat da anoetarra: 1972an hartu zuen parte lehen aldiz, eta harrezkero ez du sekula hutsik egin. Urte hartan 362 lagunek hartu zuten parte, eta aurten 4.000

gertu izango dira; Bengoak berak, behintzat, hala izango dela uste du.

Urte guzti hauetan berebiziko ilusioarekin parte hartu du, eta sasoiak uzten dion artean jarraitzeko asmoa duela dio, baina hainbeste jende biltzeak tristura puntu bat ere ematen dio: «Alde batetik oso polita da hainbeste jende mendian ikustea, eta guztiak ere helburu berarekin. Gertatzen dena da, ordea, beste lau urtetan jende asko eta asko ez dela berriro mendira itzuliko. Ni igandero ibiltzen naiz, eta dozenerdi bat lagun baino gehiago ez dituzu aurkitzen; XIV Orduetan berriz, 3.000tik gora».

Hainbeste jende elkarteak arazoak ere sortzen ditu Anoetako mendizalearen esanetan, batez ere ibilaldiaren bukaeran: «Amezketara mehatzetatik jaistea ez da oso erosoa izaten, jende asko iladan doalako.

Askotan aurrekoak traba egiten dizu, baina zuk zerorrek ere traba egitea ez da eroso». Dena dela Amezketarako azkeneko kilometroak baino okerragoko bidea badaudela aitortzen du, berarentzat behintzat: «Guardaetxetik Igaratzarako bidea aspergarria egiten da batzuetan, ez zait pistan ibiltzea gustatzen. Amezketatik Tolosarako bidea ere gogorra egiten da, Amezketara iristean bertan zaudela uste baituzu, eta oraindik 14 kilometro geratzen dira».

Dena dela, Berazubini sarzea bezalako sentazioak gutxi direla azaltzen du.

Prestaketa beharrezkoa

Horrelako ibilaldi batean parte hartu ahal izateko prestaketa derrigorrezkoa da, eta Demetrio Bengoak ez du txantxetan hartze: «Jende askok uste du hau erraza dela, baina hankak txikitu egiten dira. Ibilbideak, berez, ez du misterio handirik, baina ordu asko dira. Hankak ondo babestu behar dira».

Horregatik ikusten du beharrezkoa mendiko urte osoko jarduna, eta ez bizpairu hila-betokoa. Bestalde, oinetako eta arroparen garrantziak zorrotz mintzo da: «Azken edizioa arte oinetako eta galtzerdirik aldatu gabe egiten nituen probak. Orain ukendu eta guzti ibiltzen naiz».

Ezinbestekoa da izerdiak eragiten dituen arazoei aurre egiteko, hori gogorarazten du behin eta berriz: «Besazpi, hankarte eta oinak babestea komeni da, ibilian ibiliaz eta azala azalaren kontra erre egiten baitira».

IRURA ▶ KULTURA ASTEA

Astebete kultur ekitaldi gaurtik hasita

Nesken arteko pala partidarekin hasiko dituzte astebeteko ekitaldiak



laz bezala hainbat kirol proba izango dira aurten ere. ALOÑA IPINTZA

B. IRAOLA

San Isidro baserritarren patioaren egunarekin batera, gaur hasiko da herrian Kultur Astea. Arratsaldean ekingo zaie ekitaldiei. Irurako pilota eskolako nesken arteko pala partidekin. 17:00etan izango dira, trinketea.

19:00etan meza izango da, baserritarren zaindariaren omenez San Miguel parrokiaren, eta meza bukatzeaz bat Irurako dantzariak saio bat eskainiko dute herriko plazan. 21:00ak aldera, berriz, Aizpuru jatetxean afaria egongo dute herriko baserritarrek.

Etzi, berriz, 16:30ean ekingo diote ekitaldiekin. Ordu horretan haurrentzako kirol probak izango dira Etxezarreta kalean. Patinetan, bizikletan,

korrika eta beste hainbat probatan aritzeko aukera izango dute. Partaideen artean, gainera, merienda bat izango da probak bukatu ondoren.

Igandea haurrentzako ekitaldi bete dago, izan ere 18:30ean euren neurrirako partidekin. 17:00etan izango da Auskalo talde bilbotarrak *Kroketa zopa* ikuskizuna eskainiko du San Miguel plazan.

Honetaz gain, argazki lehiaketako lanekin osatutak erakusketak izango da. Ipuin lehiaketari dagokionez, berriz, epea oraindik irekita dago. Lehen mailatik aurrerako gazte txoentzat da deialdia, eta Maiatzaren 20ra arte egongo da irekita. Hirugarren mailara bitartekoek hamar bat lerroko ipuina egin beharko dute, eta besteek hogeiren bat.

ANOETA ▶

Festa Alternatiboetako izen-emateak

Festa Alternatiboetarako hainbat ekitalditarako izen-ematea irekita egongo da ekitaldi horiek egin baino egun bat lehenagora arte. Bazkari edo afarietan, edota dantza egin eta danborradan parte hartzeko, Itzuli tabernan eman daiteke izena.

ANOETA ▶

Presoen aldeko kontzentrazioa astelehenean

Anoetako Ezker Abertzaleak kontzentrazioa deitu du datorren astelehenerako. 19:30etik aurrera izango da, plazaren sarreran, eta *Guztitan artean euskal presoak Euskal Herrira* lelopean.

ANOETA ▶

Aureskolako matrikulatze epearen irekiera

Astelehenean hasi, eta hilaren 28ra bitartean irekita egongo da aureskolan izena emateko matrikulatze epea. Anoetako udaltekera jo behar da horretarako. Aurkezpen bat izango da.

BERAZUBI
taberna • jatetxea

Ogitartekoak
Kaxuelitak
Plater konbinatuak
Menuak enkarguz

Tel.: 943 67 26 19
Berazubi futbol zelaia

SASTURAIN
taberna

zerbait hartzera
gonbidatzen zaituztegu

Eliz kalea • AMEZKETA • 943 65 53 23



ASTEASU ▶ GIZARTEA

Gipuzkoako II. Zaldi Eguna antolatu dute biharko Asteasun

Goizean hasiko dira ekintzak eta 20:00ak arte luzatuko da aurten zaldien festa; azokak eta erakustaldiak izango dira

GARAZI AZKUE

Gipuzkoako II. Zaldi Egunerako dena prest dago Asteasun. Zaldiaren inguruan ikusi eta ikasi daitekeen guztia egongo da herrian bihar.

Pasa den urtean izan zen lehen saioa, eta «izugarriko arrakasta» izan zuen. Egin zuen eguraldi onak izan zuen zerikusirik jendetza etortzearekin, antolatzaileek 10.000 lagun inguru gerturatu zirela kalkulatu zuten. Harrera hori ikusita, aurten ere berriz egin behar zutela erabaki zuten momentuan.

Ikustekoak goizean goiz hasiko dira, 9:00etan emango baitote hasiera Zaldi Egunari, animalien harrerarekin. Eta 20:00ak arte ekintza eta erakustaldi ugari izango da jarri dituzten hiru pistetan.

Askotariko heziketa erakustaldiak, gurpil eta barrika probak, zaldi erakustaldia harriekin, arraza ezberdinen erakusketa edota ferratze eta burdinlanen erakusketa ikusteko aukera izango da, besteak beste bihar.



Zaldiaren inguruan ekintza ugari prestatu dituzte. TOLOSALDEKO HITZA

Baina egitarauan jarritako ekintzez gain, egun guztian zehar zaldiak, pottokak eta karruak izango dira paseatu ahal izateko. Bestalde, bigarren pistetan, zezen mekanikoa jarriko dute egun guztian.

Azoka ere egongo da herrian, erakusketa postuak zaldi tresnekin edota artisau postuak. Tabernak ere jarriko dituzte bertaratzen direnentzat,

taloak, odolkiak edota zaldi haragia erosi eta probatu ahal izateko. Aurten lehen aldiz, bufalo haragia ere probagai egongo da. Zaldi tresnen salerosketarako postuak ere paratu dituzte, baita bigarren eskuko zaldi produktuak ere.

Egitaraua 20:00ak inguruan bukatuko da, sari banaketa eta bukaera izango da ordu horretan.

EGITARAUA ▶ II. ZALDI EGUNA

Goizean goiz hasi eta 20:00ak arte izango dira ikuskizunak Asteasun.

BIHAR

9:00. Animalien harrera.
10:00.

▶ 1. pista. Zaldi egunaren hasiera.

11:00.
▶ 1. pista. Arrazen erakustaldia.

▶ 2. pista. Ferratze eta burnilanen erakustaldia.
▶ 3. pista. Poniak paseatzeko.
12:30.

▶ 1. pista. Iraulpen kosakoa. *Djigites* zaldunak (Frantzia).
13:00.

▶ 1. pista. Heziketa erakustaldiak: *Western* heziketa erakustaldia, Bakero heziketa erakustaldia eta heziketa klasiko erakustaldia.
▶ 2. pista. Zaldi erakustaldia harriarekin.
14:00.

▶ 3. pista. Basolana.
15:00.

▶ 3. pista. Garrotxa erakusketa eta *Hungriar posta* erakustaldia, *Djigites* zaldunen eskutik (Frantzia).

16:00.

▶ 1. pista. Poniak paseatzeko.

▶ 3. pista. Kurpilen probak.

17:00.

▶ 3. pista. Iraulpen erakustaldia eta piramidea *Djigites* zaldunak (Frantzia).

17:30.

▶ 3. pista. Slalom jolasak.

18:30.

▶ 3. pista. Bakero heziketaren erakustaldia.

19:00.

▶ 3. pista. Barriken jolasak.

20:00.

▶ 2. pista. Sari banaketa eta bukaera.

VILLABONA ▶ MUSIKA

Landarbaso abesbatza, kontzertua gaur elizan

19:45ean hasiko da Errenteriko taldearen kontzertua Jesusen Bihotza elizan

G. AZKUE

Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritzapean dator Errenteriko Landarbaso Abesbatza Jesusen Bihotza elizara abestera.

90. hamarkadan eman zuten bere lehen pausoak taldeak Errenterian, eta egun, 18 eta 30 urte bitarteko berrogeita bi gazteek osatzen dute Landarbaso Abesbatza. Guztiak ere kontserbatorio ezberdinetatik bildutakoak, eta asko,

instrumentu jotzaileak dira.

Lehiaketa eta topaketa ugarietan egon da Landarbaso, Tolosaldeko 33. Abesbatza Lehiaketan hartu zuten parte, esaterako, 2001. urtean. Eta Avilako abesbatza lehiaketan lehenengoak izan ziren.

Gaur izango dira Villabonan, kontzertua eskainiko baitute elizan. Talde korala 19:45ean hasiko da musika emankizunarekin, Villabona Jesusen Bihotza elizan.

LARRAUL ▶ GIZARTEA

Lore azoka izango da gaur Larraulgo plazan

10:30etik eguerdira arte egongo da lore azoka; maiatzaren 23an ere egingo dute



lazio Larraulgo lore azoka. U. URREGA

G. AZKUE

Bihar izango da lore azokaren lehen hitzordua Larraulen. Mota guztietako loreak eta landareak bilduko dira plazan biharko egunean. Azokari 10:30ak inguruan ekingo diote eta eguerdira arte luzatuko da lore festa.

Loreak Usurbildik etorritako enpresak ekarriko ditu jendaurrea.

Badira jada hiru urte azoka

berezi hau antolatzen duela Larraulgo Udalak. Bertako arduradunen esanetan, «eguraldiaren arabera, baina orokorrean etortzen da jendea loreak eta landareak ikusi edo erostera».

Bihar izango da ikusgai Larraulgo plazan azoka. Hala ere, bihar gerturazterik ez dutenek, bigarren aukera izango dute datorren igandean, maiatzaren 23an; berriz ere ekarriko baitituzte loreak.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

Exkabazioak Lur mugiketak, eskollerak eta Garraioak

PERU, S. L.

Mug.: 610 77 33 30
Telf.: 943 65 37 21
Telf./Fax: 943 65 00 79
Errotaldea Pol 2-1.nabea
20270 ANOETA

IBARRA ▶ GIZARTEA

Pegatinen bilgune

Bihar egingo dute 'Paparretik Ibarrra' lelopean Pegatina Bildumazaleen III. Topa Festa; Euskal Herriko pegatina bildumazaleak izango dira bertan



Ibarrako Gaztetxean antolakuntzako Juanjo Arrieta eta Xabier Arginzoniz erakusketa atontzen. HITZA

DANI GIBELALDE

Bilboko lagun batekin sarritan aritzen zen solasean Juanjo Arrieta segurara; Euskal Herrian pegatina bildumazaleen bilkura moduko bat antolatu zitekeela zuten buruan. Horren harira, Arrietak bere filosofia kontatu zion. «Pegatinak zertarako? Egin, erabili, gorde eta erakusteko. Horixe da pegatinaren prozesua, egin beharreko ibilbidea».



Prozesu hori islatzeko, Arrieta berak asmatu du aurtengo leloa: *Paparretik Ibarrra*.

Leioako Gaztetxean antolatu zuten lehen topa festa 2002an,

iaz Gasteizkoan egin zuten, eta aurten Ibarrako Gaztetxeari otu zaito. Topaketa egiteko Euskal Herriko probintzia desberdin bat aukeratzen dute urtero. «Gazteek egun hori aprobetxatzea nahi izaten dugu une horretan bartzeko errebindikazio bat bertatzeko».

Bihar, pegatinak trukatzeko baliatuko dute eguna. Bildumazale bakoitzak mahai gainean botako ditu ekarritako pegatina guztiak; bakoitzak, nahi dituenak aukeratuko ditu. Halaber, zehazteke dago nola egingo duten. «Izan ere, aurreko urteetan izugarriko zurrunbiloa sortzen zen».

Ibarra «herri txikiagoa, politagoa, goxoagoa delako» aukeratu dute. «Mugimendu handia duen herria da Ibarra». Itxuraz, aurten jende ugari izan du topaketaren berri, Ibarrako Gaztetxeo webgunearen bitartez horietako asko. Hortaz, Euskal Herri osoko pegatinazaleak bilduko dira bihar.

Arrietaren hitzetan, pegatina baten edertasuna ez du bakarrik estetika ematen. «Nik zuzenean lortutakoak maite ditut batez ere. Bizi izandakoaren gogoia pizten didate».



Pegatina bildumazaleen sarean, «zintzoa izatea beharrezkoa» omen da; «lagunei ondo erantzun behar diezu». Posta asko erabiltzen dute bildumazaleek pegatinak elkar trukatzeko, baina Arrietak nahiago du aurrez aurre geratu, eta zuzeneko harremana izan. «Kopuruak ez du poztasunik ematen. Bakoitzak gustura egon behar du duenarekin, asko nahia bai, baina betiere duzunarekin konformatuz. Gehiago izateko obsesioa izanez gero, bilduma deformatu egingen da».

Pegatinen bilduma, «errebindikazioz betetako liburua bat» da Arrietarentzat. «Ezin dut pegatina gustukoena auke-

TOPA-FESTA ▶

EGITARAUA

11:00. Ongietorria (panelak kalera).

12:00. Goizeko pegatina trukea.

14:30. Bazkaria.

16:00. Arratsaldeko pegatina trukaketa.

19:00. Balorazioa.

ratu, norbaitek gustuko duen liburu batetik orrialde bat aukeratu ezin duen bezala. Edo nola ere, bilduma, pegatinak ongi antolatuta daudenean izaten da, gainerantzean, pegatina pilo a besterik ez da».

Jendea asko eman dizkion arren, 16.000 pegatina desberdin bildu ditu Arrietak. Asteazkenean zehar, erakusketa bat ipini du ikusgai Gaztetxean, 1.000tik gora pegatinekin. Bihar kalera aterako dituzte panelak.

Disfrutatu egingen du Arrietak pegatinekin, eta hitz egiterakoan atzematen zaio. Egunero joan da Arrieta Gaztetxeo erakusketara. «Pegatinekin begira ez naiz aspertzeko».

Segurarrak eskertu nahi izan ditu Ibarrako gazteak, Gaztetxean «erakusketa aurrera eramaten utzi digutelako». Bestalde, biharko topaketan, parte-hartzaile guztiak pegatina bana oparitutako die Ibarrako Gazte Asanbladak behar da.



BERROBI ▶

Bordeleko azokara joateko izen-ematea

Maiatzaren 22an, larunbata, Bordelen (Frantzia) egingo den Nazioarteko Azoka dela eta, aurten lehenengo aldiz, bertara joateko gonbitea luzatu nahi die berrobitarrei. Udaleko Kultur Batzordeak, bidaia antolatu du adin guztietako lagunek egun horretaz gozatzeko aukera izan dezaten. Prezioa 15 eurokoa da (12 urte azpikoentzat 6 euro), eta izena ematerako unean ordaindu behar da. Afaria, prezioan sartzen da. Irteera herriko plazan izango da, 07:45ean. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, udaletxeo idazkaritzarekin harreman jarri daiteke (943-68 30 85). Izena emateko azken eguna maiatzaren 20a da.

IBARRALDEA ▶

Berastegin eta Elduainen bihar sendotzak

Gazte ugari sendotza sakramentua egingo dute bihar Berastegi eta Elduaingo parroki elizetan. Berastegin, 12:00etako meza nagusian izango dira sendotzak, eta Elduainen 10:00etan. Bi herrietan elizkizunak amaitu ondoren, hamaiketako bat egiteko aukera izango da parrokieta-ko lokaletan.

BERROBI ▶

Pilota, toka, eta txakoli dastaketa izango dira gaur

Atzoko herri afariaren ondoren, XIV. Kultur Asteari amaiera emateko 16:00etan Urreburuko gaztetxoek pilota partidak jokatu dituzte frontoiean elkarren aurka. Jarraian, Toka Txapelketa jokatu dute. Udaletxe aurrerantzean txakoli dastaketa ere izango da torneoaren ostean.

IRAGARKI LABURRAK ▶

Administrari laguntzailea. Plaza libreak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Hurrengo inkomporazioak; Zarautz, Hernani, Beasain, Berrobi, Irun, Erreterria, Bergara eta Oñati. Doako informazioa: 943 444509.

Harreragile-telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritzan eta

udaletan. Hurrengo inkomporazioak: Hernani, Aretxabaleta. Doako informazioa: 943 444509.

Ezindua. Zure ezintasuna %33tik gorakoa bada, aprobetxatu ezazu aukera. Lortu lanpostua udal eta Eusko Jaurlaritzan. Deituiguz. Doako informazioa: 943 444509.

Mantenimendua. Lorazainak,

garbitzaileak, peoiak, lanpostu libreak: udaletan, Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 444509.

Basozainak. 17 plazako eskaintza. Lan egin gustuko duzun horretan. Lortu lanpostua naturarekin bat eginez lan egin ahal izateko. Doako informazioa: 943 444509.

Gidariak. Plaza libreak udaletan,

Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 444509.

Udaltzaintza. 43 plaza libre. Hurrengo inkomporazioak: Hondarribia, Hernani, Usurbil, Irun, Arrasate, Beasain, Ordizia, Oñati, Azkoitia, Erreterria, Zumarraga. Doako informazioa: 943 444509.

Gizarte langilea. Hurrengo inkomporazioak: Beasain, Berrobi, Itsasondo, Altzaga. Udaletan eta Foru Aldundian. Doako informazioa: 943 444509.

Bigarren Hezkuntza. Haur Hezkuntza. Plaza libreak. Deituiguz eta lagunduko dizugu. Doako informazioa: 943 444509.

GUTUN@K ▶



izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Foru Aldundiaren jarrera Lurgintza kooperatibarekiko

Lurgintza Nekazal Kooperatiba duela 33 urte sortu zen. Baserritarrok eta baserritarrentzat sortu genuen Gipuzkoan kooperatiba hau. Hasierako pauso zail bezain garrantzitsu haietan eta ondorengo urteetan ere Balentin Zamora apaiza izan genuen bidelagun. Filosofia jakin batetan oinarritu zen Lurgintza Kooperatibaren sorrera, beharra eta izateko arrazoia. Hau da, baserritarrok gure baserriko jarduera, bizi kalitatea eta bizi maila hobetzea ahalbideratuko zuen bitarteko eraginkor bezain sendoa eraikitzea. Behar genuen zerbitzu, aholku eta abarren gune garrantzitsu eta ezinbestekoa izatea, guk geuk Kooperatibaren gidaritza eramanez.

Urte guzti hauetan Lurgintzaren inguruan estrukturatuta Gipuzkoako lehen sektorea zerbitzuei dagokion atalean. Hamahiru elkarte sektorial, bederhun kooperatiba, eta hirurehun baserritarretik gora Lurgintzaren bidez eraman ditugu gure gestio tekniko ekonomikoak, gure kooperatiba eta elkarteetako administrazioa koordinazio lanak... Esan beharrik ez dago Lurgintzak oso paper garrantzitsua jokatu behar duela baserritarren zerbitzura eta gure interesei begira lan eginaz.

Azken urte hauetan gure sektorea egoera zail bat bizitzen ari da. Nekazal politika desberdinek markatu dizkiguten bideak eta betebeharrak bidegurutze batean jarri gaituzte. Gure jarduerarekin jarraitzeko ditugun traba eta oztopo guztiak gainditzeko gero eta zerbitzu gehiago eta hobeak behar ditugu.

Jasotzen ditugun zerbitzuak hobetzeko, ditugun behar horiek zeintzuk diren eta kooperatiba bera nola egokitu beharko genukeen erabakitzeke Plan Estrategikoko abian jarria dugu.

Baina badirudi baserritarrok gure artean eztabaidatu, erabakiak hartu eta inoren morroi izan gabe aurrera jarraitzea ez dela batzuren gus-tuko.

Sektore honetan, beste edozein sektoretan bezala, diru publikoa beharrezkoa dugu ditugun egiturak mantendu eta aurrera ateratzen izateko. Baina badirudi Foru Aldundira iritsi zaizkigun politikoei eta konkretuki Nekazaritza

Saileko arduradunek baserritarrok beraien morroi izatea nahi dutela. Beraien morroi izan edo bestela diru publikorik gabe gelditu behar.

Inposaketa eta mehatxua erabiliaz elkarte sektoriale beraien funtzionamendurako urteetan eman zaien dirua kendu nahi zaie, eta Nekazaritza Sailak bultzatuta horretarako sortu berri duten enpresa pribatu batetara bideratu, elkarteen iritzia ezertarako kontutan hartu gabe. Estrategia honekin txori bat baino gehiago harrapatu nahi dituzte tiro batez, elkartei duten autonomia kendu, beraiek sortu duten enpresa finantzatu, sektorean urte luze hauetan egin den estrukturaraketa ankar gora jarri eta bide batez Lurgintza ekonomikoki zigortu eta desagertarazi. Nork ematen du gehiago?

Txabarri jaunak hamar bat eman zion Foru Aldundian osatu zuen ekipo berriari. El-karrizketan oinarritutako legegaldia izango zela agindu zigun. Non gelditzen dira hitz horiek? Txabarri jaunak taldeari eman zion kalifikazio horretan, hasierako zenbakia soberan dago Nekazaritza Sailari dagokionean.

Lurgintzan duela urte gutxi batzuek kargu politikoko baten prepotentzia, inposaketa, mehatxua eta zigorra ezagutu genuen, jokabide horiek ez dira berriak guretzat. Zoritxarrez baserritarrok horrelako pasabideak eskotan jasan behar izan ditugu. Duintasunez aurrera jarraituko dugu gure bidea eta ziur gaude denborak bakoitza bere lekuan jarriko duela. Horrelako *sasipolitikoetatik* San Isidro anpara gaitzala.

MARIAJE INTXAUSTI ▶ LURGINTZAKO LEHENDAKARIA

Ezer gutxi ospatzeko

Gaur, maiatzak 15, San Isidro eguna dela eta, Instituzioek eta arduradun publikoek adierazpenak egingo dituzte gure baserritarren lana gorai-patuz eta lehenengo sektorearen irudi idilikoak gizarteratuz.

Baina Gipuzkoako EHNEren ustez arden ere ezer gutxi ospatzeko izango dugu gure sektoreak sufritzen dituen arazo nagusiak areagotu dire-lako azken urte honetan, atzerapausu nabarmenak eman-gez.

Atzerapausu nabarmena Foru Aldundiarekin harreman eredu-an datza, egungo Departamentu buruek EHNEre-

kin harremanak etetea edo, behintzat, EHNE hizketakide gisa ez onartzea erabaki dute-lako.

EHNE egongo ez balitz bezala lana egin nahi du Foru Departamenduak eta horra hor, adibide batzuk jartze-aren, Nuria Lopez de Gereñu-aren jarrera gure jarduera sindikala baldintzatzen saiatuz, nekazal-elkarteekiko izandako eraso politikoa haien auto-nomia erabat murriztuz edo ia-zko lehortearen inguruan izandako nagieria, azpiegitu-estrukturalak ez plangintz-tzuz.

Aldi berean, Foru Aldundi-ak (Eusko Jaurlaritzarekin batera) azpiegitura erraldoiak diseinatzen jarraitzen du, lu-rraren amaigabeko galera sortaraziz: Abiadura Handiko Trena, N-1 eta A-8ko hirugar-ren bidea, Oarso osoaren de-sitxuraketa (Pasaiaiko super-portua, autobidea, saihe-sbi-deak, erraustegia,...), Eibar eta Gasteiz arteko autobidea, eskualdeko hiltegien itxiera, agroaldean desagerpena edo murrizketa eta abar luze bat.

Guzti hau aurrera eraman nahi dute nekazaritzan zer no-lako eragina izango duen kal-kulatu gabe, gure baserriak nola gelditu diren aurreikus-i gabe eta ustiategi askoren etorkizuna kolokan jarriz.

Atzo Gipuzkoako Foru Al-dundiak bere Aparteko Inber-tzio Plana aurkeztu zuen eta nahiz eta arreta haundiz ira-kurri ez dugu gure sektorea aurkitu: ez dugu guk esango kirola, kultura edota gizarte arazoak lehentasuna ez dire-la baina zerranda luze horretan nabarmenegia da nekazari-tzaren hutsunea.

Behin eta berriz EHNEk aparteko inbertsioen beharra aldarrikatu du baserri eta mendien azpiegiturak hobe-tzeko, gazteak baserrietara hurbilazteko edo nekazal-lurra babesteko. Baina berri-ero ere, ezertan gelditu da Foru Aldundiaren erantzuna.

Baina ez dugu kexa hutsean gelditu nahi. San Isidro ospa-tu ala ez, egun aproposa izan daiteke gure aldarrikapenak gizarteratzeko. Gipuzkoak eta Euskal Herriak nekazaritza behar dute, lurra behar dute, hemengo produktuak behar dituzte, kalitatea behar dute eta guk, baserritarrok, prest gaude bide horretan jarraitze-ko.

Gure ustez San Isidro eguna aproposa da ozenki gure etor-kizunarekin konpromisoa ber-rrusateko: Guk lurra nahi dugu, euskal gizarteak behar gaituelako.

GIPUZKOAKO EHNE ▶ TOLOSA

GIZARTEA ▶

Baserritarren egun handia

Mezak, bazkariak, bertsolariak... antolatu dituzte San Isidro egunerako

OLAIA ESKITXABEL

San Isidro, baserritarren eguna, da gaur; horren aitzakipean, ekitaldi ugari antolatu dituzte eskualdeko hainbat herri-tan.

Mezak eta bazkari edota afa-

riak herri izango dira herri gehienetan. Kirolak ere izango du lekurik: idi probak, aizkolari-ak...

Musika izango da, bestalde, gaurko protagonista, bertsolari-ak eta trikitilariak entzun ahal izango baitira.

EGITARAUA ▶

ABALTZISKETA

Meza. San Joan Deunaren elizan. 12:30ean.
Bazkaria. Estanko tabernan. 13:30ean.

ADUNA

Meza. 11:00etan Santa Krutz elizan.

ASTEASU

Meza. 12:00etan.
Idi proba. 13:30ean. Joxe Barriola eta Olarra Goikoa 2.000 kiloko harriarekin marka ezartzeko saiakeran.
Bazkaria. Sarasola sagardotegian. Ondoren, bertsolarien eta trikitilarien saioak.

BALIARRAIN

Afaria. Zartagi jatebean. 21:00etan.

ELDUAIN (BIHAR)

Gazta lehiaketa. Goiz osoan.
Bazkaria. Kontzeju tabernan. 14:00etan. Ondoren, bertsolariak.
Kale antzerkia. Iraulio Panttalone Hernaniko bertso eskolako bertsolariak Kale antzerkia egingo dute. 18:00etan.

LARRAUL

Afaria. Goiz argi jatebean. 21:00etan.

ORENDAIN

Meza. San Sebastian ermitan. 12:00etan.
Bazkaria. Ostatu jatebean.

TOLOSA

Prozesioa. 11:40ean. Santa



lazko prozesioaren irudia. HITZA

Maria elizako atarian bilduko dira ondoren herriko kaleetan zehar prozesioa egiteko.
Meza. 12:00etan Santa Maria elizan.

ZIZURKIL

Meza. 11:00etan.
Idi proba. Burrusti Kixkurraren aurka ariko da. 12:00etan.
Aizkolariak. Joseba Otegi 3. mailarako ahaleginean. 13:30ean.
Bazkaria. 14:00etan, Plaza Etxeberrin. Ondoren, bertsolariak eta trikitilariak.
Dantzariak. 18:00etan Bukalai dantza taldearen saioa.

ARAMBURU
Salgai (Iruña), Duplex-a salgai
Iruña, 1. bezarreta kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajea
Laskoran kalean. Garaje irekia.
Alokatzeko (Iruña), Garajeak Ni-
kel Gai Alinguru Enparantzan.
Alokatzeko (Tolosa), 145m² bu-
legoa Larromendi kalean.
Salgai (Tolosa), Garaje irekia
Ameroz auzoan. Oso merke.
943 65 17 13 / 677 460 916



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Tolosa. Markeliñe taldearen eskutik, *Igandeetan piratek jai* haur antzerkia, 17:00etan, Leidor zinema aretoan.

DEIALDIAK

Berastegi. Sendotza sakramendua egingo dute bihar, 12:00etan meza nagusian.

Berrobi. Urreburuko gaztekoen artean pilota partidak, 16:00etan.

Elduain. Sendotza sakramendua, bihar 10:00etan.

Larraul. Lore azoka berezia, 10:30etik eguerdira arte.

Villabona. Onddo Gazte Asanbladaren festa. 9:00etan Onddo mendira ibilaldia, bazkaria, jokoak, 21:00etan afaria eta kontzertuak.

GARAGARDO FESTA

Ibarra. 18:00etatik 01:00etara zabalik egongo da Garagardo Festa, eta bihar 18:00etatik 00:00etara. Bi egunetan haur jolasak izango dira 18:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga J. Martin Jose Iraola, 10. Telf.: 943 67 24 38.

KULTUR ASTEA

Berrobi. Pilota partidak

Urreburuko gaztekoen artean 16:00etan; ondoren, VIII. Toka Txapelketa eta txakoli dastaketa udaletxe aurrean.

MUSIKA

Tolosa. Potemkin eta Sharon Stoner taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.
Villabona. Landarbaso Abesbatzaren kontzertua, 19:45ean elizan.

SAN ISIDRO

Abaltzisketa. Meza, 12:30ean San Joan Deunaren elizan.

Ondoren, 13:30ean bazkaria Estanko tabernan.

Aduna. Meza Santa Kruz ermitan 11:00etan.

Asteasu. 12:00etan meza, 13:30ean erakustaldia probalekuan, eta 14:30ean herri bazkaria Sarasola sagardotegia.

Baliarrain. Afaria 21:00etan Zartagi jatekian.

Larraul. Afaria Goiz-argi jatekian, 21:00etan.

Orendain. Meza San Sebastian ermitan 12:30ean; ondoren, 13:30ean, bazkaria Ostatu jatekian. Bazkarirako diru laguntza eskainiko du Udalak; falta dena bakoitzak ordaindu beharko du.

Tolosa. Tolosaldeko Izaskun kooperatibak antolatuta: 11:40ean prozesioa Santa Mariatik Alde Zaharreko kaleetan eta 12:00etan meza.

Zizurkil. 12:00etan idi proba

ondoren aizkolariak. 14:00etan bazkaria eta 18:00etan Bukalai dantza taldearen emanaldia plazan.

TOLOSA KUP

Gaur.

13:00. Ikatza/Txanpa.

13:45. Mattin Gaizt/Yogurines.

14:30. Errekalde/The Pabris.

15:15. Trans Escol/Ekazit.

16:00. Eguzki/Orbela.

16:45. Kafe Iruña/Ttanttogor.

17:30. Bikutz/Elorri.

18:15. A ke no 10/The

Apalantx.

19:00. Asteasuarra/Super

Pang.

19:45. Begi gorri/Romeo.

20:30. Kontra kien/Magrebi.

21:15. Garikoitz/Popesku.

HITZA TXAPELKETA

Aduna. (Infantilak, 10:00etan). Iraola-Iraola/Esnaola-Esnaola.

Barandiaran-Oliveira/Lujambio-Eizagirre. Gaztañaga-Aizpurua/Elola-Dorronsoro.

Aldalur-Otamendi/Urteaga-Oregi.

Alegia. (Alebinak, 16:00etan). Gaztañaga-Iratorza/Iraola-Zubeldia. Urretabizkaia-Kasatorre/Senperena-Goitia.

Azketa-Muñoz/Irazustabarrena-Zabala. Galarraga-Egiguren/Eizagirre-Manterola.

Tolosa. (Etorbizkakoak, 11:00etan). Aranzabe-Galarraga/Elurbe-Garmendia.

Etxebeste-Elizalde/Zabaleta-Zabala.

POXPOLAN ▶ EGARRI TABERNA

Bada non aukeratu...

Zizurkilgo Egarrri taberna jatekian bada non aukeratu. Karta zabala dute bertara bazkaltzera edo afaltzera doazentzat. Kaxuelak: onddo eta gula eta ganba nahasiak, piper beteak, tripakiak edota albondigak; razioak: fritoak, olagarroa, iberikoak, esparragoak, patata bixiak...; entsaladak: Egarrri entsalada, gula eta ganba entsalada...; ogitartekoak, sandwichak eta hanburgesen artean aukera zabala, baita plater konbinatuak ere, kostilarekin, arkume txuletekin edota bakailuarekin. Egarrri taberna egunero dago irekita, gozoko 7:00etatik aurrera. Egarrri edaritegia, Erniobea, 7. Zizurkil.



ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Libal Elizegi Ormazabal (Asteasu).
 Gaur 2 urte. Zorionak eta bi muxu aita, ama eta likeren partetik.



URTE ASKOAN

Heiko Wim Nicu Callens
 Atxaga. Gaur 7 urte.
 Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN

Maialen eta Lorea Senperena (Abaltzisketa).
 Gaur 8 eta 4 urte. Zorionak eta muxu bana gurasoen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara

(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
 Mila eskert!



BADUZU ZER AUKERATU

- Plater konbinatuak
- Entsalada
- Kaxuelak
- Razioak
- Pintxoak...

Erniobidea, 7 • ZIZURKIL
 Tel.: 943 69 62 57